

¡AUSEN DA BURU NASTIA!

(«UÑO CHURIYEN» DOÑUAN)

AZALKAYA:

Alargun ta ume zaurtza;
Munduan zer gauza utza.

Aur chikiya nitzanian,
Amachoren magalian,
Bezarka eta mušu artian
Egoten nitzan pakian;
Maite nindun biyotzian,
Bai nik bera ere nerian.

Ni gabe ez zeukan onik,
Ez da ere bera gabe nik;
Bakar bakarrik pozutzen giñan
Elkarri mušu emanik,
Ark aña maite nauenik,
Ez det uste iñon danik.

Batian kontu kontari
Aniak esan ziran neri:
«Zuk illabete izan bañan len
Aitak muñ emanik zuri,
Joan zan itsasora larri...
T'ezda oraindik etorri! . . .»

Geroztikan nik begiyak,
Dauzkat urian jarriyak
Nere egunen egille ura
Ikusteko egarriyak;
Echeratzenau larriyak...
Erresatzera guaz biyak!...

Gure Jaunari erregu
Biyok egiten diyogu,
Artu zeeala bere gloriyan,
Ori bakarrik nai degu;
Gabik utzitzen ez degu...
Beti erresatzen gaude gu!...

Chalupik bada kayian
Sartzen bere ondorian
Ama eta ni izaten gera
Aita ikusi nayian...
Eta an ez daganian,
Arra gure barrenian! ...

Oroitza oso polita
Daukat aitachok utzita;
Bera da, aita *San Antoniyo*,
Lore fiñez eztalita.
Gelan an daukat jarrita
Oroitzen ditala... aita!...

Ez gaitu ezek alaitzen
Ta gure biziya aitzen,
Dijua penaz... ¡a Jauna!
Dizugu bada eskatzen,
Zerun geranian sartzen
la aita degun topatzen!...

¿Ez alda gauza tristia
Semia ta emastia
Aita itorik itsaso ortan
Bakardadian uztia...
Maiterik bata-bestia
. ?
¡Auseñ da buru nastia...
. !

JOSÉ ARTOLA